

3. alea

2005ko azaroa

UDAZKEN, KEN, KEN,



DIZKARIA HEMEN

BERRIAK



Hemen dator berriz ere gure aldizkaria. Indarrak berriztu ditugu eta aurten gure asmoa maizago ateratzea da, bi hilabete behin gutxigorabehera.

Baina horretarako denon laguntza eta partaidetza beharko dugu.

Hasteko, IZEN BATEN BILA GABILTZA.

Zein izen ipiniko zenioke gure eskolako aldizkariari? Gustatzen al zaizu Sallabentekaria?

Idatz ezazu zure proposamena papel batean eta andereñoari eman.

SAN MARTIN AZOKAN, SALLABENTEKOAK HAN




El día 13 de noviembre se celebra en Ermua la feria de San Martín.

El alumnado de 6º participa también este año con un puesto de verduras y otros productos. El dinero de la venta se destinará a sufragar los gastos del Viaje de Estudios.

ANIMATU ZAITEZTE ETA EGUN HORRETAN JOAN ERMUKO PLAZARA EROSTERA!

Gainera euskal giroaz gosatzeko eta talo eta txorizoa dastatzeko aukera ezin hobea izango duzu.

*Esaera zaharra: "San Martin, lanak lana eragin"



1. ZIKLOA

DENOK URETARA !!!



Dagoeneko igeri ikastaroa hasi gara herriko polikiroldegian. Oso dibertigarria da.

Baloiekin, txalupak eginez dzanga egiten, txirristaratik botatzen... ibiltzen gara. Ikastaroa bukatzerakoan arrainak bezalakoak izango gara. **EZKATA ETA GUZTI**



IKASLE BERRIAK LEHEN HEZKUNTZAN

Bada garaia eskola handian egoteko. Espero dugu asko ikas-tea, ondo pasatzea eta lagun berriak egi-tea.

2. ZIKLOA

Kurtsoa hasi bezain laster 2. zikloko ikasleok lehenengo irteera egin dugu. Hau Urkiolako Parke Naturalera izan da.

Irteera honen bitartez babesturiko naturguneen garrantzia eta ingurunekiko begirunezko portaera sortuko duten baloreak eta jarrerak ezagutu ditugu.

Eguraldi zoragarria izan genuen eta beti bezala primeran igaro genuen

HAU BAI NATURALA, URKIOLA



IKASTAROAN BERRIRO

Como todos los años el alumnado de 3er curso hemos comenzado el cursillo de Natación. Hasta finales de marzo, todos los viernes, iremos a las piscinas del Polideportivo con el propósito de llegar a ser unos extraordinarios nadadores. Igual no lo conseguimos... pero lo bien que lo pasamos en el intento...



3. ZIKLOA

EZAGUTZEN DUZUE ZERAIN ?



3. ZIKLOKOEK bageneukan gogoia, eskolako aldizkariaren bidez, gure gorabeheren berria emateaz.

Hasteko gure lehenengo irteera daukagu. Nora? **ZERAINERA**

Hara joaterakoan gure helburua **ZERAINEN** dagoen **Parke Kulturala** ezagutzea zen.

Denbora galdu gabe, bi monitoreren laguntzaz, antolatuta zegoen ibilbidea hasi ginen herri bertan. **Diaporama** baten bidez zeraindarraren izaera adierazten ziguten.

Museo Etnografikoan tresna, altzari,

lanabes, dokumento,... ugari ikusterakoan herri honen bizimodu eta ohiturak ezagutu genituen.

Handik **Larrondoko Zerrategia** ezagutzera joan ginen. Nahiz eta 1890 urtean eraiki, gaur egun bere mekanismoa (urez baliatzen da) martxan ikus daiteke. Ikustekoa da.

Hamarretakoa egin ondoren **Aizpeako Meategietara** abiatu ginen. Eta otartekoa jan ondoren, digestioa eta autobusera. Merezi izan du.



